

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO POLITIKAK**  
**ALDI BATERAKO EZINTASUNEN GASTUA BERRESKURATZEA**

**1. INFORMAZIO POLITIKA**

| <b>DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: ALDI BATERAKO EZINTASUNEN GASTUA BERRESKURATZEA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b><i>Tratamenduaren arduraduna</i></b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <p><b>LAGUNARO, EPSV</b> (aurrerantzean, LagunAro)<br/> Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 1858. liburukia, 144. folioa, SS-3413 orria<br/> Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa)<br/> IFZ V20068094<br/> Telefona: 943 79 01 00</p> <p><b>DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK</b><br/> Datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es</p>                                                                                                                                                                                                                         |
| <b><i>Tratamenduaren helburua</i></b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <p>Hirugarren erantzule bat edo aseguru etxe bat dagoenean, mutualistaren datu pertsonalak honako helburu hauekin tratatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirugarren erantzule horren eta/edo haren aseguru etxearen aurkako erreklamazio baten oinarri liratekeen gertaerei buruzko informazioa lortzeko.</li> <li>• Erreklamazioaren beraren bideragarritasuna baloratzeko.</li> <li>• Erreklamazioa kudeatzeko eta aldi baterako ezintasuneko prestazio gisa ordaindutako edo aurreratutako zenbatekoak berreskuratzeak.</li> </ul>                                                                                                         |
| <b><i>Tratamenduaren legitimazioa</i></b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <p>Datu pertsonalak tratatuko dira beharrezkoak direlako LagunArok mutualisten aldi baterako ezintasunaren prestazioaren gastuak berreskuratzeak duen lehentasunezko interes legitimoa asetzeko, hirugarren erantzule bat eta/edo aseguru etxe bat dagoenean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikuluen arabera.</p> <p>Horrez gain, beharrezko datuen artean mutualistaren osasun datuak badaude, datu horiek tratatuko ditugu beharrezkoak direlako LagunArok hirugarren erantzulearen edo aseguru etxearen aurka erreklamazioak egiteko, gauzatzeko edo defendatzeko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2.f) artikuluen arabera.</p> |
| <b><i>Datuen jatorria</i></b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <p>Interesduna.<br/> Hirugarrenak (aseguru etxeak).<br/> Hala badagokio, mutualistaren kooperatiba.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b><i>Datuak komunikatzea</i></b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |

Datuak jakinaraziko zaizkie LagunArok legezko akzioak gauzatzeko agintzen dien abokatutzako profesionalei, epaileei eta auzitegiei, eta, hala badagokio, alderdi demandatuei, bai eta legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei ere, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluaaren arabera.

Era berean, datuak tratatuko dituzte hirugarrenen erantzukizun kasuetan gastua berreskuratzeko prozesua kudeatzeko erantzukizuna eman zaion enpresak (LKS S. Coop.), LagunAro Servicios S. Coop.ek eta papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresa hornitzaileak, bai eta gastua behar bezala berreskuratzeko behar den beste edozein enpresak ere, zeintzuek LagunAroren jarraibideak betez tratatuko dituzten datuak.

#### **Nazioarteko transferentziak**

Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.

#### **Datuak gordetzea**

Datuak gorde egingo dira pertsonak mutualista izaten jarraitzen duen bitartean, bai eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan ere.

#### **Eskubideak**

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: [dpo@lagunaro.es](mailto:dpo@lagunaro.es) edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarrjeta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.

#### **Segurtasun neurriak**

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren arabera segurtasun maila bermatzeko.